



Nesken paleta gomako Elite eta Euskal Herriko Irekiko finalen aurkezpena: Adierazpenak

Javier Zubizarreta – Azkoitiko alkatea

Azkoitia pilotarien sehaska dela badiote, zerbaitengatik izango da eta guretzat, frontoia jokatzeko lekua baino gehiago da, denen etxea, hain justu. Pilota hitz egiteko orduan, gizonak etortzen zaizkigu burura, baina iragan mendearen hasieran, erraketistak Amerikara joan zirela gogoratu behar dugu eta horiek izan ziren lehen profesionalak emakumezkoen kirolan. Asko zor diegu eta ea etorkizunean elkarrekin jarraitzen dugun bidean.

Patxi Jauregi – Euskadiko Euskal Pilotako Federakuntzako presidentea

Azkoitia beti egon da lotuta pilota mundura, eta, aldi berean, pilotak ez dauka logikarik Azkoitia barik. Federakuntzatik elkarlan hori bultzatu eta elkarrekin aurrera jarraitu nahi dugu, hainbat ekintzekin prestatuz. Bihar nesken pilotako final garrantzitsuena izango da hemen ikusgai, lehia munduko txapeldunak ere egon direlako. Guk emakumeak bultzatu eta promozionatzeko asmoa daukagu eta Berria, babesleetako bat, eta Udaletxeari eskerrak eman nahi dizkiogu.

Ángel Martín – Azkoitiko kirol zinegotzia

Euskadiko Federakuntza zoriontzen dugu egindako apostuarengatik, merezi du eta. Klubaren lana ere goraiatu nahi dugu, kirol honi ematen duen babes txalotzekoa delako. Bihar onenek irabaz dezatela eta espektakulu polita ikus dadila espero dugu.

Andoni Álvarez – Berria egunkariko ordezkaria

Berriak eskuzko klubaren arteko txapelketa bat antolatzen du, indar handia dauka, baina ez genuen inoiz ezer egin emakumeekin. Zerbait antolatu beharrean, martxan



dagoen txapelketa horiek bultzatzea proposatu ziguten eta ohore bat da guretzat, horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu, bai Federakuntzari, baita Udaletxeari ere.

Antxon Alberdi – Euskadiko Euskal Pilotako Federakuntzako Teknikaria

Elite Txapelketa Azkoitian jokatu da, zortzi bikotek hartu dute parte, lau multzotan bananduta, lehenengo biak finalerdietan sartu ziren eta irabazleak finalera ailegatu dira. Irekian, berriz, bederatzi bikote zeuden, hiru multzotan bananduta, eta kasu horretan, lehengoak eta bigarrenen artean onena heldu ziren finalerdietara. Aldi berean, Zumarragan, Abetxukon eta Mallabian Bigarren Mailako Irekia jokatu da eta finala hurrengo astean ospatuko da Lekunberrin.

Jesús Mari Andueza – Oteiza pilota klubeko ordezkaria

Oso partida politak ikusi ditugu Gurean txapelketa osoan zehar, haiek ez dute inbidiarik sentitu behar paletaz jokatzen duten mutilekin alderatuta eta lehiak estuak izan dira. Poza handia izan da torneo horiek hona ekarri izana eta hemen gaude, edozer laguntzeko prest.



Presentación de las finales del Elite y el Abierto de Euskal Herria de paleta goma femenina: Declaraciones

Javier Zubizarreta – Alcalde de Azkoitia

Si dicen que Azkoitia es cuna de pelotaris es por algo, y para nosotros, el frontón no es solo un sitio para jugar, es algo más, es la casa de todos. Cuando hablamos de pelota, se nos vienen a la cabeza los hombres, pero hay que recordar que a principios del siglo pasado ya hubo raquetistas que fueron a América y que fueron las primeras mujeres deportistas profesionales. Les debemos mucho y esperamos seguir juntos en este camino en el futuro.

Patxi Jauregi – Presidente de la Federación de Euskadi de Pelota Vasca

Azkoitia siempre ha estado ligada a la pelota y la pelota no tiene lógica sin el pueblo de Azkoitia. Desde la Federación queremos potenciar este trabajo en común y seguir adelante juntos y con distintas iniciativas. Mañana se va a ver la final femenina más importante, porque en este campeonato han participado campeonas del mundo y queremos apoyar y promoción el papel de la mujer en la pelota, a la vez que dar las gracias a Berria, como patrocinador, y al ayuntamiento.

Ángel Martín – Concejal de deportes de Azkoitia

Queremos felicitar a la Federación de Euskadi por esta apuesta que realiza y que merece la pena, y también queremos reconocer la labor del club. Su apoyo a este deporte es digno de aplaudir y deseamos que mañana ganen las mejores y se presencie un bonito espectáculo.



Andoni Álvarez – Representante de Berria

Desde Berria organizamos un campeonato de clubes de mano que tienen mucha fuerza, pero no habíamos hecho nada con la pelota femenina y nos plantearon la idea de, en vez de organizar algo, apoyar algo que ya estaba en marcha. Es un honor apoyar estos campeonatos de chicas y queremos dar las gracias y felicitar a la Federación y al ayuntamiento.

Antxon Alberdi – Técnico de la Federación de Euskadi de Pelota Vasca

El Campeonato Elite, disputado en su totalidad en Azkoitia, ha contado con ocho parejas, divididas en dos grupos, las dos primeras accedieron a las semifinales y las ganadoras son las que mañana disputarán la final, mientras que en el Abierto había nueve parejas que jugaban en tres grupos distintos. En este caso fueron las primeras y la mejor segunda las que accedieron a las semifinales. De manera paralela se ha estado disputando en Zumarraga, Abetxuko y Mallabia el Abierto de Segunda, cuya final tendrá lugar la semana que viene en Lekunberri.

Jesús Mari Andueza – Representante del club de pelota Oteiza

A lo largo de la competición, hemos visto partidos muy buenos en el Gurea, ellas no tienen nada que envidiar a los chicos que juegan a paleta y los encuentros han estado muy disputados. Ha sido una alegría que hayan traído este campeonato y aquí estamos para ayudar en lo que sea.